

nak, etxekoenak, baldin ba'ziran batez ere. Arrotzengandik zer ikasia ugari ba'geneukalakoan zegoen. Zuzen, noski. Euskal-erria da, jakiña, euskal-kultura gaiak lantzeko lantegirik egokiena, sortzez eta izatez ortarako aukeratua. Baiña ezta berez, besterik gabe, alabear utsez, ikas-leku nagusi bihurtuko. Ori jakiñik sortu zuen bere aldizkaria, lurbira osoan euskal-jakingaien berria zabaldu duen RIEV ura. Eta ortara zuzendu zituen gero ere bere alegiñak.

Bere asmoak — gere asmoak — bizi dira oraindik. Eta gure artean dago, bere ikasbideaz gaiñera, bildu zingun liburutegi aberatsa, bere naiak betetzeko, ain gogoko izan zuen euskera goi-maillara jasotzea aztu gabe. Urkijo jaunaren bititza eta lanei buruz edozein argitasun nai duenak «Homenaje a D. Julio de Urquijo»'ren leenbiziko liburura jo dezake.

L. M.

JUAN CARLOS DE GUERRA

(1860 - 1941)



Nork aditu eztu ots aundiko izen au. Genealogi eta Heraldika kontuan aparteko itzala bereganatu duen izena, alegia? Arrasate edo Mondragoin bizi eta lan egiten zuen, antxe baitzuen bere jatorri edo leiñuko etxea, *Geneaenea* zeritzana. *Heráldica Vasca*-z egiñak dituen lan aundi ospetsuak eztitut emen aipatuko. nonai billa baititeke heroiak berri. Bai, ordea, Arantzazuko Andre Mariaren omenez, euskeraz egiña duen liburua: «*Ama Virgiña Aranzazu koaren Kondaira*», Donostian, 1890. Liburu au Donostiko Lore-Jokuetan saristatua izan zan. Ortaz gaiñera, gure izkuntza zaarraz zer ikusi dutelako, aipagarri dira berberak egingidako edizio auek ere: «*Viejos textos del idioma*» eta «*Los cantares antiguos del euskera*». Mondragoitarrak Arantzazurakoan, urteoroko beren erromerian, kantatzen duten kanta eder ura ere, berberak tajutua da.

Donostian jaioa zan 1860 urtean eta bertan il 1941 garrenen. Goian bedi!